

BARNETIK



USTIAPEN PEDAGOGIKOA

Josiane **Aguerre-Valencia**



Ilustrazioak: Hegoa Arregui


Zuzenketak: IKASeko lankideak

Maketazioa: Xabier Elizondo

Argitalpena: Unai Zubeldia

Argitalpen arduraduna: Aines Dufau

Legezko arduraduna: Maite Erdozaintzi-Etxart



Sagutxo

Kasu, kasu!
sagu... sagutxo!
Kasu, kasu!
sagutxo!

Gorde hadi!
Bestenaz
izanen haiz
gatuen janari.
Kasu, kasu!...

SAGUTXO

HIZKUNTZA, ALDERDI GUZIETARIK LANTZEA

IDATZIA

Idatziaren betekizuna ezagutzea

Ttipiak/PS

- Sagu bakoitzaren azpian sagu berdina kola ezazu. (1. eta 2. fitxak)

Idatziaren oinarrizko marrazteak egitea; tresna, material, teknika eta jestu mota zenbait esperimentatzea

Ttipiak/PS

- Saguaren ileak marraz itzazu. (3. fitxa)

JARDURERA ARTISTIKOEN BIDEZ ARITZEA, ADIERAZTEA, ETA ULERTZEA

IKUSMEN EKOIZPENAK

Tresna egokiak baliatzea

- Sagu ttipiak margo itzazu. (4. fitxa)

GOGOETA EGITURATZEKO LEHEN TRESNAK ERAIKITZEA

ZENBAKIAK ETA HAIEN ERABILERAK EZAGUTZEA

Zenbakiak aztertzea eta idaztea

Artekoak/MS

- 1, 2, eta 3 zifrak idatz itzazu. (5. fitxa)

ITXURAK, HANDITASUNAK, SEGIDA ANTOLATUAK IKERTZEA

Itxura sinpleak ezagutzea

Ttipiak/PS

- Lauki karratu guzien gainean gometxa karratu bat kola ezazu. (6. fitxa)

Puzzleak egitea

Ttipiak/PS

- Puzzlea: saguaren puzzlea osa ezazu. (7. fitxa)

Artekoak/MS

- Puzzlea: gatuaren puzzlea osa ezazu. (8. fitxa)

